

Moctezumaren mendekua

–Arratsalde on, Ekaitz!

–Arratsalde on, Izaskun! Eta arratsalde on, entzule!

–Bueno, gaur, iaz egin genuen bidaiari buruz hitz egingo dugu, ezta, Ekaitz?

–Ándele, ándele! Qué chingón, güey! México lindo y querido...

–Orain dena da poza, baina han egun batzuetan gaizki pasatu zenuen, e, Ekaitz?

–Uf, bai... Moctezumaren mendekua! Bi egun pasatu nituen beherakoarekin.

–Beherakoa bakarrik ez: botaka ere aritu zinen!

–Bai, bai, uf, denetik izan nuen! A zer sabeleko mina! Kalanbreak sentitzen nituen. Eta hotzikarak ere izan nituen! Moctezuma madarikatua!

–Entzuleei azaldu beharko diegu zer den Moctezumaren mendekua, Ekaitz!

–Bai, arrazoi! Ba, Moctezuma azteken enperadorea izan zen.

–Espainiarrak iritsi zirenean, hau da, lehen europarrak iritsi zirenean, bera zen hango enperadorea.

–Hori da. Ba, kontua da Moctezuma hil egin zutela! Ez dakigu espainiarrek hil zuten ala aztekek hil zuten espainiarren laguna zelako, baina hil egin zuten.

–Bai, hori da. Ba, espainiarrek Mexikoko produktu batzuk ekarri zituzten Europara. Artoa oso merkea zen, eta, horregatik, asko jaten zuten, baina...

–Baina ez zuten ondo ikasi aztekek nola prozesatzen zuten artoa, eta prozesuaren pauso bat ez zuten egiten.

–Eta, horregatik, jende pila bat gaixotu zen, eta asko hil ere egin ziren.

–Horri “Moctezumaren mendekua” deitu zioten mexikarrek. Zergatik? Ba, enperadorea hiltzeagatik espainiarrek jaso zuten zigorra zelako.

–Hori da, eta orain turistak hartzen duen gastroenteritisari ere “Moctezumaren mendekua” esaten diote.

–Güey, mejor no te comas esos frijoles!